ataria

2021-10-29 • 1.496. zenbakia
107.6 fm • www.ataria.eus

# Adiskidetasuna gizarteratuz Txolarterekin

# AURKIBIDEA

**Iritzia** Itzea Urkizu Arsuaga **3**
**Erreportajea** Irakurzaletasuna liburutegietatik bultzatzen **4-7**
**Zientziaren Talaia** Josu Lopez-Gazpio **8-9**
**Asteko Gaia** Txolarte, lagunak boluntario bidez **10-17**
**Hitzez Hitz** Ramon Olasagasti **18-19**
**Iritzia** Ion Mintegiaga 'Minde' **20**
**Iritzia** Olatz Peñagarikano **21**
**Bertsoa** Aitor Mendiluze **23**
**Agenda** Shrabani Aranzaberekin EHko Gazte Abesbatza **26-29**

**Azaleko irudia**
Eneritz Maiz Etxarri

ataria

**URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83€**

ATARIAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Argitaratzailea:** Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **Lege Gordailua:** SS-1323-2013 **Telefonoa:** 943 65 56 95
**Koordinatzailea:** Rebeka Calvo Gonzalez **Kudeatzailea:** Iban Urdapilleta Alkizalete **Bezero arreta:** 943 30 43 46
**Webgunea:** ataria.eus **Posta elektronikoa:** ataria@ataria.eus **Irratia:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
**Publizitatea:** 661 678 818 • publi@ataria.eus

**Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:**

Tolosaldeko gizarte eragileak

**Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:**

**Udalak:** Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa eta Zizurkil.

Gipuzkoako Foru Aldundia

**ITZEA URKIZU ARSUAGA**
INAUTERIZALEA URTE OSOAN

# Galde-erretolika bat

Zein gutxietsita dauzkagun galdera erretorikoak; sasigaldera horiek. Edo, hala komeni denean, gure diskurtsora ekarrarazten ditugun baliabide literarioak. Erantzuna soinean, probokazioa esanahian; horrela sortzen dira mundura, xalo. Zorrotz, batzuetan, eta punta-zorrotz, odola egin nahi denetan. Galdera erretorikoa neurri berean baita hitzezko arma eta trintxera, karta guztiak mahai gainean jarri gabe eztabaida bat irabazi nahi duenarentzat.

Aitortuko dut, neronek oso tarteka baino ez ditudala baliatzen; ziurrenik, ikasi beharko nuke bat edo beste egokiago formulatzen, nire zutabeen arkitektura hobetze aldera. Gaur, ordea, bestelakoa izango da testua josiko duten galdera erretorikoen egitekoa: meloitxo bat zabaltzea, erabateko erabakimenez zabaltzen ari naizela agerian utzi gabe. Berriki kantu bat heldu baitzait, *whatsapp* mezuz, zuzen-zuzenean interpelatzen nauen galdera erretoriko batekin, iradokiz –ezpada fermuki baieztatuz–, gure semea matrikulatu dugun ikastetxe horretan matrikulatu dugula, arrazoi bakarragatik: migratzaileekin nahasteko aukera saihesteagatik. Arma ala trintxera?

Ikus dezagun. Izan ere, zein da, azken aldi luze honetan, fokuaren argi guztia beste inori segregatzaile deitzeko ahaleginean jartzearen arrazoia? Harrapatuta gauzka norgehiagokaren erotikak? Zergatik kondenatu polarizaziora bi eskola-komunitate, etorkizuna bide berera batuta irudikatzeko gogoa behar luketen bitartean? Zintzoki, bi polo horietako batean arazoa eta bestean konponbidea daudela uste al dugu? Benetan? Zeren, hala baldin bada, nolatan baliatu, gero, segregatzailearen etiketapean sailkatu dudanaren hezkuntza-proiektu propioa, nire etxean? Akaso, kontua ez delako itunetan, dirutan eta sistemaren nolakotasunean neurtzekoa bezain sinplea? Jokoan dagoelako unibertso oso bat eta bertan bizitzeko eta sentitzeko moduak hezkuntza-proiektu formatuan transmititzeko bermea ere? Beharbada, elkarrekin aztertu beharko genituzkeelako unibertso horretako ateak munduko edozein herri, auzo, etxe, klase, familia eta txokotatik datorren ikasleari zabaltzeko moduak? Hainbeste sasi-iritzi eta sasiadituren aurretik, eztabaida honen erdigunea hartu beharko luketelako eskola-segregazioa jasan dutela sentitzen duten ahotsek ere? Eta, hori egin beharrean, mezu populistak gizonki zabaltzen aritzea txalo errazaren bila abiatzea besterik ez delako? Auskalo; ni, badaezpada ere, banoa nire trintxeratxora.

**Zergatik kondenatu polarizazioa bi eskola--komunitate, etorkizuna bide berera batuta irudikatzeko gogoa behar luketen bitartean? Zintzoki, bi polo horietako batean arazoa eta bestean konponbidea daudela uste al dugu?**

# IRAKURZALEAK TXIKITATIK SORTZEN DIRA

Liburutegien Nazioarteko Egunaren harira, Ibarrako liburutegian duela hilabete batzuetatik martxan duten bitartekarien irakurketa klubean egiten duten lana aztertu nahi izan du 'Ataria'-k. Imanol Mercero aritzen da saioa dinamizatzen eta 2 eta 16 urte bitarteko gaztetxoen artean irakurzaletasuna bultzatzearen garrantziaz jarduten dira bertan.

**Jon Miranda**

Urriaren 24an ospatzen da urtero Liburutegien Nazioarteko Eguna. 1997an sortutako ekimena da, gizartea irakurketaren garrantziaz kontzientziatzeko eta liburuzainen lana omentzeko. Data horrek, 1992. urteko urriaren 24ari egiten dio erreferentzia, Balkanetako gerran Sarajevoko liburutegia suntsitu zuten egunari, alegia.

Irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak aurkezteko baliatzen dute nazioarteko eguna liburutegiek eta baita dagoeneko egiten dituzten lanak hauspotzeko. Ibarrako udal liburutegian, esate baterako, bitartekarien irakurketa kluba jarri dute berriro martxan hilabete honetan. 2 eta 16 urte bitarteko haurrei eta gazteei bideratzen zaien literaturaz hausnartzeko taldea da eta Imanol Mercerok (Pasaia, 1969) gidatzen du. «Ibarrako kultura zinegotziak eta biok elkar ezagutzen dugu aurretik eta gai honekin zerbait egin nahi zutela esanez gerturatu zitzaidan. Planteamendua egin eta orduan hasi genuen ekimena», esan du Mercerok.

Asteazkenetan biltzen da bitartekarien irakurketa kluba Ibarrako liburutegian, 18:00etatik aurrera. Gurasoak gerturatzen dira gehienbat, baina baita irakasle eta liburuzainak ere. «Haur literatura aipatu eta umekeriei buruz ari garela iruditzen zaie zenbaiti. Uste dut gai hauetan interesa piztea kosta egiten dela eta bozgorailu falta handia dagoela», aipatu du Mercerok.

Haur eta gaztetxoei bideratutako liburuen azterketa egiten dute klubean parte hartzen duten taldekideek, eta hasierako iruzkin hori entzun ondoren, liburuaren gainean elkarrizketa sortzen da klubean. «Nik laguntzen diet liburuak aukeratzen eta zerrenda zabala eskaintzen diet, beti ere genero ezberdinak kontuan hartuta. Gero badaude liburu tekniko batzuk, oso komenigarriak eta publiko orokorrarentzat baliagarriak direnak eta horiek aletzea nire lana izaten da».

Dena den, klubean parte hartzen duten herritarrei liburuak zerrendatuta ematea baino nahiago izaten du Mercerok kideei erremintak eman, eurak jabetu daitezen esku artean hartzen duten liburuak zein balio duen. «Batez ere saiatzen naiz transmititzen liburua ez dela sufritzea edo izerditzea, liburu batera gerturatzen garen guztiak gozamena dugula helburu. Irakurketa klub honetan ere hori da helburu nagusia, ondo pasatzea, eta uste dut lortzen dugula, saio guztietan irribarretxo batekin ateratzen baikara».

Edozein obra literariok plazera eman diezagukeela defendatzen du irakurketa klubeko gidariak eta ez da literatura mota ezberdinen artean sailkapenak egitea-

Ibarrako liburutegiaren ataria, bertan egiten dute astean behin bitartekarien irakurketa kluba. **ATARIA**

ren zalea. «Haur eta gazteentzako literatura, hutsala edo sinplea denaren ustea izan dezake jendeak, baina ez da egia. Besterik gabe, parametro jakin batzuetan sortutakoa da, baina edozein obren antzera irakurlearri plazera ematea du helburu».

**Bitartekarien garrantziaz**

Irakurketak badu gaitasun tekniko baten beharra eta hori etxean bezala eskolan landu daiteke. Merceroren ustez, gaitasun tekniko horretan laguntzeaz aparte, bitartekariaren figurak aukeraketan lagundu behar dio haurrari: «Umearen eta munduaren artean bitartekaria dago eta hark erakutsi behar dio liburutegirako bidea edo liburu dendarakoa. Gaztetxoarei erakutsi behar dio denbora fisikoa kudeatzen eta egunero tarte bat hartzen irakurketarako. Oso modu utilitarioan ikusten dugu askotan bitartekaria eta askotan ahaztu egiten zaigu liburu batekin zenbat goza dezakegun transmititzea dela garrantzitsuena».

Umeak liburuetara gerturatzeko errezeta magikorik ez dagoen arren, Mercerok uste du irakurlea izango den pertsona hori ez abandonatzean dagoela giltza. «Gehienbat 6-7 urterekin letrak dominatzen hasten direnean eta umea irakurtzeko gai dela ikusten dugunean inertziaz abandonatu egiten ditugu. 'Tori liburua eta irakurri' esaten diegu eta bakarrik uzten ditugu». Horri erremedioa jartzeko, umearekin, umearentzat eta umearen aurrean irakurri beharra dagoela dio irakurketa klubeko dinamizatzaileak. «Ez da nahikoa irakurtzen jakitea, irakurtzen ari zaren horri zentzu bat eman behar diozu. Haurra irakurtzen ari denean gu bertan egotea garrantzitsua da, akonpainamendua deitzen zaion hori egitea. Txandaka irakurri dezakegu berekin. Eta heldu garen heinean, irakurri behar dugu haien aurrean, etsenplua eman behar diegu, ikusi behar gaituzte irakurtzen. Normalizatu egin behar den jarduera da irakurketa, ez dezaten irakurtzea eskolarekin bakarrik lotu».

Argi du adin jakin batzuetan irakurtzeko gaitasunean egin beharra dagoela bultzada. «Alfabetatzea deitzen diogun hori egin behar da. Irakurtzen ondo ikasi beharra dago, gure pentsatzeko modua eta gure bizitzeko modua asko baldintzatuko duelako horrek. Irakurtzen dakienak, liburuak maneiatzen ikasten duenak, aurrera egingo du eta bere burua kokatuko du mundu honetan. Gaitasun hori eskas garatzen duenak, bere burua gizarteko bazterrean egotera kondenatzen du».

Irakurri eta gozatzearen garrantziaz ohartarazita urrian abiatu dute Ibarran bitartekarien irakurketa klubaren hirugarren txanda. Abendura bitartean izango dituzte saioak astean behin eta bertan parte hartu nahi dutenek izena emateko aukera eta informazio zabalagoa izango dute Ibarrako liburutegian.

## IRAGARKI LABURRAK

**Salgai.** Apotea, zerramak eta sei hilabete inguruko txerrikumeak salgai. Interesatuek deitu 607 668 603 (Joxe Kruz) telefono zenbakira.
Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus**-en.

# «Aurrera egiteko bultzada ematen digu sariak»

## ARANTXA ZABALA ARTOLA
PLAZIDA OTAÑOKO LIBURUZAINA

Aurreko apirila inguruan liburutegian gauzatu zuten 'Nekeetan irria ezpainetan' proiektua aurkeztu dute Maria Moliner irakurzaletasuna bultzatzeko lehiaketara eta aipamena jaso du Aiztondoko Plazida Otaño liburutegiak.

**Jon Miranda**

Irakurzaletasuna bultzatzeko Maria Moliner XX. Kanpainak 50.000 biztanletik beherako udalerrietako liburutegietan garatutako irakurmena dinamizatzeko 310 proiektu saritu ditu. Espainiako Kultura eta Kirol Ministerioak finantzatzen du kanpaina, orotara 700.000 eurorekin. Aiztondoko Plazida Otaño liburutegiak aipamena jaso du sariketan eta jasotako saria funts bibliografikoa eskuratzeko erabiliko dutela jakinarazi du Arantxa Zabala Artola liburuzainak.

**Zein helbururekin antolatzen dute Maria Moliner lehiaketa?**

Maria Moliner prestigio handiko sariketa bat da, estatu mailan antolatzen dena eta 50.000 biztanletik beherako udalerrietako liburutegiek dute aukera bertara aurkezteko. Aurten lehen aldiz animatu gara parte hartzera eta oso kontentu gaude jaso dugun aipamenarekin. Espainia osoko 750 liburutegik aurkeztu dituzte euren proiektuak eta 122. lekuan geratu da Plazida Otaño. Pozik gaude.

**Euskal Herriko liburutegi askok eman dute izena?**

Bai, badira batzuk izena ematen dutenak eta ia urtero sarituak izaten direnak. Pena ematen dit denak gogoan ez edukitzea, baina Nafarroako Vianakoa dut gogoan, edota Bizkaiko Elorrioko edo Muskizko liburutegiak. Hemen Gipuzkoan Eibarkoak ere jaso du aipamena.

**'Nekeetan irria ezpainetan' proiektua aurkeztu zenuten lehiaketara. Zein helburu ditu proiektuak?**

Izen horrekin laburbildu genituen apirila inguruan gauzatu genituen hainbat ekimen. Ikusita pandemiak hilabeteotan jendartean sortu duen apatia eta ondoeza, umore pixka bat sartzea komenigarria izango litzatekeela pentsatu genuen. Besteak beste, Ane Labakaren *Algara mutilatuak* liburua aztertu genuen irakurle taldean; Motxila ibiltarian jasotako umeen lanekin erakusketa bat ere antolatu genuen. Giuseppe Arcimboldren koadroak imitatzen zituzten irudiak prestatu zituzten umeek, barazki eta frutekin. Eta horren harira Kontalari2 taldeak irudi horiek erabiliz *Plazidaren baratza* ipuina kontatu zuten; Iraitz Lizarragak beste ipuin kontaketa bat egin zuen zirkua oinarri hartuta. Hori eta beste zenbait gauza ere antolatu genituen eta *Nekeetan irria ezpainetan* izena eman genion proiektuari. Egitasmo horri esker jaso dugu Maria Moliner sariketako aipamena.

**Prestigioaz gain jaso al duzue bestelako saririk?**

Bai. Esku dirutan ere ematen dute kopuru bat. Gure kasuan 2.014 euro izan dira. Baldintza batekin ematen dute: liburuak erosteko edo harpidetzak egiteko erabiltzea diru hori. Kopuru hori inbertsio bezala erabiltzea eskatzen digute. Ondo etortzen da funtsa berri-

Arantxa Zabala Plazida Otaño liburutegiak Maria Moliner saria jaso izana erakusten duen kartelaren ondoan. **J.M.**

tzeko, urtean izaten dugun aurrekontua urte amaierarako ia agortuta izaten dugulako. Orain Durangoko Azokarako argitaratuko diren liburu berrietan gastatzeko aukera izango dugu.

**Aurrera jarraitzeko motibagarria izan da?**

Bai. Dirua baino gehiago bide honetan jarraitzeko ematen digun motibazioa da garrantzitsua. Animazioan jarraitu eta ideia berriak ekartzeko bultzada ematen digu sariak. Erronka asko dauzkagu esku artean eta horiei aurre egiteko indarra ematen digu.

**Irudimen asko eskatzen al du irakurzaletasuna bultzatzeak?**

Bai. Irene Urruzola lankideak eta biok talde ona osatua dugu eta ilusio horrekin erraza da ideiak etortzea. Beti ari gara buruari eragiten, irakurzaletasuna bultzatzeko zer egin ote dezakegun pentsatzen.

**Aurrera begira zein beste proiektu daukazue?**

Liburutegien Nazioarteko Egunaren harira, aurreko asteburuan Divinas elkarteak antolatutako ipuin kontaketa saioa izan genuen eta gero trentza tailerra egin genuen liburutegian bertan. Astelehenean hiru dimentsioetan ikusi ahal izateko oihaneko animalien irudiak prestatu genituen umeentzako. Aste honetan hasi dugu euskarazko irakurle taldearen aldi berria eta Oihana Iguaran amasarra ariko da hemendik aurrera hilean behingo saioak dinamizatzen. Tarteka, saio horietara, idazlea gonbidatzeko asmoa ere badugu. Motxila Ibiltaria ekimenarekin ere aurrera jarraitzen dugu eta hiruhileko honetan umeek superheroi bat eta heroi horrek duen boterea asmatu beharko dituzte. Gero, Oihana Iguaranek eta Maria Altuna ilustratzaileak elkarrekin prestatu duten Plazida Otañoren bizitzari buruzko *Plazida oihartzunaren plaza* ipuin ilustratua inprentan dago eta aurki aurkeztu ahal izango dugu herrian. Mila ale aterako ditugu.

> «Beti ari gara buruari eragiten, irakurzaletasuna bultzatzeko zer egin ote dezakegun pentsatzen»

**hilberriak · urteurrenak · eskertzak**

**Txikia:** 110€ ·
Atarikideentzat: 55€
**Handia:** 160€ ·
Atarikideentzat: 80€
**Eskertza:** 60€ ·
Atarikideentzat: 30€

Eskelak · ataria@ataria.eus · Tel: 943 65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu.
Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu.

- IX. URTEURRENA -

**Joxe Roman Zabala Labaka**



*Gure bidelagun. Maitasunez*
Etxekoak

- XIII. URTEURRENA -

**Joxan Zabala Otegi**

**ERREZIL,** 2021eko urriaren 29an

**JOSU LOPEZ-GAZPIO**
KIMIKAN DOKTOREA
ETA ZIENTZIA
DIBULGATZAILEA

# Gasak eta barreak

Azken hilabeteotan droga berri baten erabilera antzeman da. Hobeto esanda, aspalditik ezaguna den substantzia bat droga gisa geroz eta gehiago erabiltzen dela ikusi da. Dentistek, besteak beste, anestesiko gisa erabiltzen duten gas barre-eragilea kale-edaneko giroetan ere kontsumitzen da, hain zuzen ere. Kontsumitzeko modua sinplea da: koloretako puxika bat oxido nitrosoz betetzen da eta ahoarekin puxikatik gasa arnasten da.

Oxido nitrosoa gas koloregabea da, gaixoak sedatzeko eta mina arintzeko erabiltzen dena. Alabaina, azken urteotan droga gisa ere erabili da, nagusiki Erresuma Batutik iritsi den moda gisa. Aspalditik ezaguna den arren, badirudi Espainian, eta baita Bartzelonan ere, bere kontsumoa modu nabarmenean handitzen ari da. Droga hori erabili dela jakiteko bere arrastoak bilatu behar dira: kale-zurrutean dabiltzanen artean koloretako puxikak ikus daitezke eta baita lurrean botatako gas-kapsulak ere.

Oxido nitrosoak medikuntzan duen erabileraz gain, autoen motorren errendimendua hobetzeko erabiltzen da eta elikagaien gehigarri gisa ere erabil daiteke kasu batzuetan –gozogintzan erabiltzen da, adibidez–. Horrexegatik, oxido nitrosoak baditu legezkoak diren erabilerak eta zirrikitu horietaz baliatzen dira saltzaileak. Gas barre-eragilea lortzea ez da zaila, baina, dituen ondorio anestesikoak larriak izan daitezke. Alkoholarekin batera kontsumitu ohi denez, arrisku handiko praktikak egitera bultza dezake. Azken uda honetan, esaterako, gazte bat hil zen Marbellan oxido nitrosoa kontsumitu ondoren izandako biriketako edemaren kausaz.

> Dentistek, besteak beste, anestesiko gisa erabiltzen duten gas barre-eragilea kale-edaneko giroetan ere kontsumitzen da, hain zuzen ere.

Gas barre-eragileak hasiera batean euforia, haluzinazioak eta kontrolatu ezineko barrea eragin ditzake eta horiexek dira oxido nitrosoa kontsumitzen dutenek bilatzen dituzten efektuak. Alabaina, gehiegizko kontsumoak –eta, jakina, kontrolatzen ez den kontsumoaren kasuan ezinezkoa da gehiegizko kontsumoaren muga kontrolatzea– oxigeno faltarengatik miokardioan kalteak, zorabioak eta deskoordinazioa eragin ditzake. Azken muturreko kasuetan, herio-

tza ere ekar dezake gas barre-eragileak. Ikuspuntu kimikotik, oxido nitrosoak oxigenoak baino difusio azkarragoa du eta, hortaz, biriketako albeoloetan oxigenoari lekua kentzen dio.

Oxido nitrosoa, hasieran esan bezala, dentistek erabiltzen dute haien jardunean gaixoen sedaziorako bere efektu anestesikoengatik. Litroak egiten ari direnen kasuan, zilar-koloreko kapsula txikietan lortu ohi dute eta kapsula horrekin puxikak betetzen dira. Jarraian puxikan dagoen gasa ahotik arnasten da gasaren efektuak lortzeko. Oxido nitrosoak oso modu desberdinetan eragin dezake kontsumitzailearengan: pisuak, beste drogen kontsumoak, arnastutako kantitateak, osasun-egoerak... modu nabarmenean alda ditzake gasak sortutako ondorioak. Epe luzeko kontsumoak, gainera, ondorio are larriagoak izan ditzake organismoan.

Momentuz kasurik ugarienak Bartzelonan antzeman badira ere, beste hainbat hiritan ere kontsumoa handitzen ari dela nabari da eta EAEn ere oxido nitrosoaren presentzia detektatu da. Erresuma Batuan jada oxido nitrosoaren erabilera mugatzeko legeak prestatzen dabiltza; izan ere, bigarren drogarik kontsumituena bihurtu da eta, une honetan, gai kezkagarria da. Adituen arabera, gure inguruan ez dirudi, momentuz, gehiegizko kezka sortu beharko lukeen droga denik. Erabilera nahiko anekdotikoa den arren, hauxe da zenbait iruditan ikus daitezkeen koloretako puxika horien azalpena eta baliteke geroz eta arruntagoak izatea.

> Gas barre-eragilea lortzea ez da zaila, baina, dituen ondorio anestesikoak larriak izan daitezke. Alkoholarekin batera kontsumitu ohi denez, arrisku handiko praktikak egitera bultza dezake.

# BOLUNTARIO BIDEZKO LAGUNTASUNA

Adimen desgaitasuna duten pertsonak elkartzen dituen elkartea da Tolosan dagoen Txolarte; erabiltzaileak, lagun artean, hamabostean behin batzen dira, eta boluntarioek egiten duten lanari esker, elkarrekin ekimen ezberdinak eginez pasatzen dute arratsaldea.

**Eneritz Maiz Etxarri**

Txolarte adimen desgaitasuna duten pertsonen elkartea da. Hamabostean behin larunbatetan elkartzen dira Tolosan, eta Noemi Alonso eta Naia Arnaez tolosarrak eta Alaia Ugalde alkizarra boluntarioak dira Txolarten. 60 urte badira guraso talde batek Atzegi sortu zuela, eta Atzegitik kudeatzen dute Txolarte.

Normalean 16:30etik 19:30era elkartzen dira Tolosan duten gunean. «Beraiekin egon eta disfrutatzea da batik bat gure egitekoa», dio Noemi Alonso boluntarioak. «Beraiengandik ikasi ere egiten dugu, eta azken batean beraiekin denbora pasatzea da helburua», azaldu du Alonsok.

«Beraien lagunak ere bagara. Azken batean, beraientzat gu ere lagunak gara, beraz, beraiekin partekatzen ditugu gauzak», gaineratu du Ugaldek. «Kuadrilla baten modukoa da gune hau beraientzat, eta aste osoan zehar elkartzen diren momentu bakarra».

Adimen urritasuna duten gipuzkoarren bizi kalitatea hobetzeko lanean jarraitzen du Atzegik, eta bide horretan, kide dira eskualdeko hiru boluntarioak. Azken batean, adimen urritasuna duten pertsonen erreferente eta bidaide izan nahi du Atzegik, eta zeregin horren parte da Txolarte.

Boluntarioak erraz iristen dira desgaitasuna duten pertsonekin komunikatzera. «Komunikazio normal bat dugu, eta beraiek ere gauza pila bat kontatzen dizkigute», esan du Alonsok. «Pertsonak gara guztiak, eta denak berdin tratatzen ditugu», azaldu du Arnaezek.

Urriaren 16an hasi zuten ikasturtea, baina hiru

Kaletik paseoa egin ostean, kide guztiak askaria egiteko prest mahaietan eserita. **E. MAIZ**

boluntarioek ez dute lehen aldia. «Nik banuen honen berri, baina ezagun batzuk nituen udan egiten diren oporraldietan arituak, eta oso gustura ibili zirenak. Gizarteratzea ikasi nuen, eta probatzeagatik hasi nintzen. Oso gustura ari naiz egia esan», argitu du Ugalde alkizarrak. Duela ia hiru urte hasi zen, eta Arnaez tolosarra ere berarekin batera hasi zen boluntario lana egiten: «Alaiaren berri izan nuen, eta nik ere gizarteratzea ikasi dut. Atzegitik ere eskolara etortzen zitzaizkigun».

> «Guk beraiekin disfrutatzeaz gain, beraiengandik pila bat ikasten dugu. Larunbatetan bizitza ematen digu»
>
> **NOEMI ALONSO**

Alonsoren kasuan, hezkuntza bereziko irakasle ikasketak egin ditu: «Niri mundu hau asko gustatzen zait, eta uste dut beraiengandik pila bat ikasten dela eta animatu egin nintzen. Pila bat gustatzen zait bertan egotea, eta jarraitu egiten dut».

Boluntarioak behar izaten ditu Txolartek, eta edozein momentutan gehitu daitezke taldera. «Asteburua beste modu batera pasatzeko era bat», dio Arnaezek, eta gainera, «gure kuadrillarekin elkartuko ginatekeen moduan elkartzen gara, eta beraiekin denbora bat pasatzen dugu», nabarmendu du.

**Esperientziak partekatzeko gunea**

Desgaitasuna duten pertsonei beste aukera bat emateko toki moduan ikusten dute: «Beraiei beste aukera bat ematen diezu. Askotan ez zaie aukera gehiegi ematen, eta asko pisuetatik-eta etortzen dira, eta pisuetan ez dute aukera askorik izaten libre izateko edo kuadrilla bat izateko. Aukera ezberdin bat da, eta esperientziak partekatzeko ere ondo dago», azaldu du Ugaldek.

Ikasturtea hasi aurretik boluntarioa beharra zutela iragarri zuten, eta jendearen erantzunarekin «gustura» agertu dira. «Zazpi begirale berri daude. Orain arte beti eskas antzean ibili gara begiraleen aldetik, eta aurten jende askok eman du izena eta oso pozik gaude», azpimarratu dute beteranoek. Hori bai, nahi duen jende guztia gonbidatzen dute boluntariotza lana egitera: «Behintzat mundu hau zer den ikus dezatela, eta baita zer egiten dugun ere».

Gipuzkoa mailan dagoen elkarte handienetako bat da Tolosakoa. 38 erabiltzaile ditu, eta bolunta-



Hasi dute ikasturtea Txolarten. «Pozik eta gogotsu» itzuli ziren erabiltzaileak eta boluntarioak. Txolarten elkartu, eta kaletik paseatu, bigarren eskuko azoka bisitatu eta tabernan trago bat hartu eta gero, berriz ere, Txolarterako bidea hartu zuten. Boluntario berriek eta erabiltzaileek elkar ezagutzeko baliatu zuten eguna. **E. MAIZ**

rioak alboan izateak lanak errazten dizkie: «Zenbat eta begirale gehiago eduki hobeto».

«Gure lana asko errazten du», gaineratu du Alonsok, eta nabarmendu du: «Beraiei ere ematen zaien erantzuna hobea da».

Txolarteko lanak «bete» egiten du Arnaez: «Niri mundu hau asko gustatzen zait, eta lanean ere honetan ari naiz, eta ni bete egiten nau». «Beraiek pozik ikusteak, ongi ari direla pasatzen sentitzeak pozik jartzen nau», esan du. Bat egiten du Ugaldek ere: «Beraiei aukera ezberdinak ematen zaizkie, beraiek disfrutatzeko beste era bat da, eta orduan, hori pozgarria da». «Guk beraiengandik disfrutatzen dugu, eta beraiek gugandik ere disfrutatu egiten dute».

Gainera, Alonsok azpimarra jarri du: «Guk beraiekin disfrutatzeaz gain, beraiengandik pila bat ikasten dugu. Larunbatetan bizitza ematen digu».

### Gizarteratzean bada lana

Boluntario lana pisua galtzen doa gizartean, eta ez dira pertsona asko boluntario lana egitera animatzen direnak. Ingurukoek beraiek egiten dutenaz zer dioten galdetzean, lehen galdera, Atzegi zer den galdetzen diotela esan du Alonsok. «Onean harritzen dira», dio Ugaldek, eta «ez daude pertsona asko boluntarioki lan egingo luketenak, eta harrituta geratzen dira», gehitu du. «Orokorrean erreakzio ona izaten dute, eta erantzuna ona

Noemi Alonso, Alaia Ugalde eta Naia Arnaez Txolarteko boluntarioak. **E. MAIZ**

da», dio Arnaezek: «Ez zait egokitu norbaitek erreakzio txarra izatea, edo kaletik joan eta gaizki begiratzea, nahiz eta leku batzuetan gertatzen diren».

Gizarteratzean lan asko egin dela kontatu dute, baina, «oraindik ere aurrerapausoak eman behar dira», diote. Pauso bat gehiago eman du Alonsok: «Gizartean integratuak daude, baina ez daude guztiz barnean bermatuta. Aurrerapauso txiki bat egin dugu, baina oraindik aurrerapauso handiak eman behar dira gizartearen barruan». Eta Ugaldek bide beretik jarraitu du: «Oraindik lan handia dago egiteko, eta hori guztion artean egiteko lana da. Ez da pertsona jakin batzuen egitekoa. Ehuneko oso txikia bada ez da aurrerapausorik emango».

> «Oraindik lan handia dago egiteko, eta hori guztion artean egiteko lana da. Ez da pertsona jakin batzuen egitekoa. Ehuneko oso txikia bada ez da aurrerapausorik emango»
>
> **ALAIA UGALDE**

**Pertsonak ezagutzeko deia**

Txolarteko informazioa familiei helarazten diete, eta hasiera batean gutun bidez izaten dute familiekin harremana, baina edozer gauza jakinarazi behar zaiela familiekin hitz egiten dute. «Iaz, esaterako, koronabirusa dela eta, taldeka sailkatu genituen, eta talde bakoitzari Txolarte eguna noiz egokitzen zitzaion esateko telefono bidez deitzen genien».

Txolarten elkartu, kaletik buel-

ta bat eman, trago bat hartu eta Txolartera buelta ohiko errutina izaten dute. Gero merienda, eta bakoitzak gustuko zerbait egiteko aukera izango du. Baina, gainerakoan, Eguberrietako antzerkia, Kaldereroetarako abestia... prestatu behar izaten dituzte, eta «bi edo hiru egun atzera egin behar izaten ditugu lanketa guztia egiteko», azaldu du Alonsok.

Tolosako egutegiari begiratuta antolatzen dute Txolarteko plangintza osoa. «Askotan ateratzen gara paseora, eta beraientzat ona da ibiltzea, baina aldatu egiten da programa», dio Alonsok.

> «Gure kuadrillarekin elkartuko ginatekeen moduan elkartzen gara, eta beraiekin denbora bat pasatzen dugu»
>
> **NAIA ARNAEZ**

Erabiltzaileak aspaldian, betikoak direla esan dute. Tolosako Txolartera Ikaztegieta, Tolosa eta Ordiziako Atzegiren etxeetako erabiltzaileak ere batzen dira.

Norbaitek, ordea, senideren bat Txolarteren erabiltzaile moduan apuntatu nahiko balu, Atzegirekin harremanetan jartzea nahikoa dela argitu dute: «Atzegira deitu, eta arduradunek bideratuko dute».

Herritarrak boluntarioen lana ezagutzera animatu nahi dituzte, eta baita probatzera ere. Eta batik bat, pertsona horiek ezagutzera animatu nahi dute gizartea.

# Asun Aranburu

TOLOSA

Ikasturte berria «oso pozik» hasi dute Tolosako Txolarteko erabiltzaileek. Udako oporren ostean, urriaren 16an, hasi zuten ikasturtea Txolarten. Tolosarrak dira Asun Aranburu eta Miguel Herreras, eta Txolarteko erabiltzaileak dira.

Lehen eguna izanik, kontu asko zituzten elkarri esateko. Uda ostean, berriz, lagunekin elkartuta. Paseoan atera ziren kalera. Boluntario berriak ere bazituzten tartean ezagutzeko. Izenak galdetu, eta bakoitzaren gaineko informazioa lortzeko baliatu zuten tabernako terrazan hartutako tragoa. Baita telefono zenbakiak trukatzeko ere.

Txolarten zer egiten duten galdetzean, garbi du Aranburuk: «Paseatu, zerbait hartu, meriendatu eta bidaltzen gaituztenean etxera», eta jendearekin asko hitz egiten duela gaineratu du Aranburuk.

«Jende ona dagoenean izugarri gustatzen zait Txolartera etortzea», azaldu du Aranburuk. «Oso ondo pasatzen dut beraiekin, eta guztiak oso pertsona ona dira», dio.

Herrerasek gustuko du Txolartera joatea, eta Txolartez hizketan hastean, zinema, Kaldereroak, Inauteriak,... aipatu ditu.

Leku gehienetan gertatu den moduan, koronabirusa traba izan dute lagun artean elkartzeko, eta biei luze egin zaie elkartu gabe egon behar izan zuten denbora: «Hilabete asko izan dira». Biek ala biek Txolarten lagunekin elkartzeko gogoa zutela esan dute. Iazko ikasturtean elkartzen baziren ere, talde txikietan baino ezin izaten baitzuten elkartu.

> «Oso ondo pasatzen dut beraiekin, eta guztiak oso pertsona onak dira»
>
> **ASUN ARANBURU**

16:30ean elkartzen dira Tolosan duten lokalean. Lagun kuadrilla ederra elkartzen da, eta alboan izaten dituzte beste hainbat boluntario guztia bideratzen. Boluntario lana egiten dutenentzat hitz onak baino ez dituzte Aranburuk eta Herre-

# Miguel Herreras

TOLOSA

rasek. «Denetik egiten dute, eta oso onak dira», dio Aranburuk. «Oso-oso ondo pasatzen dugu», azpimarratu du behin eta berriz Herrerasek.

Herrerasek lagun asko dituela adierazi du Txolarten. Aldiz, Aranburuk gutxiago dituela onartu du: «Ez naiz besteak bezainbeste ateratzen». Baina Txolartetik kanpo ere oporretako lagunak-eta dituela adierazi du.

Marraztea gustatzen zaio Aranbururi, eta Txolarten praktikan jartzeko aukera izaten du. Herrerasi ere pintatzea gustatzen zaio, baina argazkilaritza eta abestea ere gustuko ditu.

Trago bat hartu ostean, Txolarterako bidea hartzen dute, eta tripa bete ostean, hau da, askaria egin eta gero, dantzatzeko aukera izaten dute Txolarteko kideek. Diskoteka moduko bat antolatzen dute bertan, eta dantza egiteko gogoa duenak aukera izaten du bakarrik edota nahi duenarekin dantzatzeko.

Artistak direla ere argitu dute. Gabonetan, urtero, antzezlana egiten dute. «Lagunei eta senideei egiten diegu», azaldu du Herrerasek. «Nik dagoeneko jaso dut gutuna», esan du poz-pozik Aranburuk, eta azarorako egin beharreko antzezlanerako ikasten hasi beharra egokitzen zaie, «eta zehaztuta dut zein egunetan etorri beharra daukadan entseguetarako». Herrerasi ez zaio oraindik iritsi, baina jaso beharreko gutuna ere bidean da.

Gabonak pasa ostean, hurrengo erronka Kaldereroetan jarria izaten dute. Kaldereroz mozorrotu, eta zartagina jotzen aritzen dira.

Gainerakoan, urtean zehar, bestelako ekintzak izaten dituzte, eta Aste Santuko oporrak eta gero, ekainean bazkaria egiten dute Txolarteko lagun guztiek.

Ez dute ia telebistarik ikusten Txolarten. Lagun artean egoten dira, baina gustuko dute telebista ikustea. Aranburuk filmak eta Herrerasek futbola ikusten du, baina *La que se avecina* telesaila ikustea biek dute gustuko.

> «Oso-oso ondo pasatzen dugu»
>
> **MIGUEL HERRERAS**

**RAMON OLASAGASTI**
GALTZAUNDIKO KIDEA

# Inkontzienteak

Fermin Etxegoienen *Totelak* (Erein) liburuaren aurkezpenari buruzko albistean irakurri nuen terminoa, idazleak eta kazetariak argitaratu berri duen liburuan sarri samar aipatzen duena nonbait: *Inkontziente linguistiko kolektiboa*. Etxegoienek liburuaren aurkezpenean esan zuen inkontziente linguistiko kolektibo hori «oso espainola» dela Hego Euskal Herrian, eta «oso frantsesa» Ipar Euskal Herrian. «Hortik, adibidez, *euskañola*-ren indarra, besteak beste», Etxegoienen hitzetan. Eta hortik Lazkao Txikiren aspaldiko errebeseko hura ere: «Martxa honetan aurki erdaraz hitz egingo dugu, euskaraz ari garelakoan».

Plazaratu izan dugu arrangura hori lehen ere: egoera beste bat balitz, igualeko lasai biziko ginatekeela etengabe euskararen aldeko gurutzada horretan borrokatu beharrik gabe; arindu latza hartuko zuketela gure mihiak, belarriak eta burmuinak etengabe «ahobizi» edo «belarriprest» izateko «nekerik» gabe... (ez bedi gaizki interpretatu nekearena, euskaldunok badakigu-eta gustuko lekuan ez dela aldaparik); nik ere, aita garbizale gogaikarri izateari utziko niokeela seme-alabek «sudatu» eta gisako perlak bota eta, izerdi hotza gorputzean, etengabe zuzentzen ibili beharrik izango ez banu...

Zoritxarrez, ordea, euskaldun kontziente izatera kondenatuta gaude, ekintzaile beti, inora joan eta, «ez ahaztu, lehen hitza beti euskaraz», gogorarazi behar diogu etengabe geure buruari, parean duguna haztatzeko bezala, eta pareko administrariak, medikuak, ertzainak, okinak edo dena delakoak menturaz euskaraz erantzuten badigu, hosana, aleluia, gurutzadan borroka txiki bat irabazi dugula sentituko dugu. Tokitan baitago noizbait denok euskaldun inkontziente izango garen lurralde utopiko hori. Denek denekin beti euskaraz, natural, berez, inkontziente, egingo dugun *wonderland* hori.

> Gure 'Liliput' honetan, hizkuntza kontuetan kondenatuak gaude sumendi baten azpian bizitzera, horretaz kontziente izatera

Baserri giroko adineko beste asko eta asko bezala, ama zena ere euskaldun inkontzientea zen. Elebakarra zen, ez zekien gaztelaniaz, eta bere

ingurune pertsonala eta geografikoa, bizibeharraren bizibeharrez mugatu samarra, euskalduna izan zen oso-osorik bere denboran. Kalean enkargutan, medikutan, parekoak ez bazekien euskaraz, gaizki pasatzen zuen, motz sentitzen zuen bere burua, baina ni berarekin nintzenetan, inoiz ez nuen sumatu pareko dendariak edo medikuak edo dena delakoak moztasun bera sentitzen zuenik. Guztiz bestela: biak elebakar izanik, bat euskalduna eta bestea erdalduna, halako keinu errukitsu bat iruditzen zitzaidan haien begiradan, esanez bezala: «Nola liteke gaur egun gaztelaniaz ikasi gabe egotea?».

Bistan denez, galdera bihurritu genezakeen beste aldera –«nola liteke gaur egun euskaraz ikasi gabe egotea?»–, baina, ai *amigo*, koxka hortxe ez ote dagoen: zertarako euskaraz ikasi, euskaraz dakiten guztiek gaztelaniaz ere baldin badakite, erraz asko eta inolako ahaleginik gabe tolesten badira guztiok dakigun erdara horretara; zertarako euskaraz ikasi, dakiena ere, *inkontziente linguistiko* kolektibo zabal hori, erdarara lerratzen bada sarri-sarri, erdaraz ari bada naturalago, hizkuntzak, gutxiago edo gehiago, «sudatu» egiten diolako.

Ez, hizkuntza kontuetan gurea ez da *Aliceren wonderland*; gurea *Liliput* da gehiago. Lurralde zabalak bere egin dituzten bi hizkuntza/herri erraldoiren azpian bizi gara. Ez ondoan eta ez erdian. Azpian. *Liliput* aipatu eta, zer den inkontzientea, sumendi baten azpian bizi den herri/hizkuntza txiki baten irudia etorri zait burura: bi isurialdeetatik laba dator goitik behera, zenbaitetan azkarrago eta goriago, zenbaitetan geldoago eta oharkabeago, baina suntsikor beti, inoiz itsaso urdin eta zabal bat izan zena ere bere egiteraino.

Gure *Liliput* honetan, hizkuntza kontuetan kondenatuak gaude sumendi baten azpian bizitzera, horretaz kontziente izatera. Eta kontzientzia hartzera.

# Umeen txertaketa, bitarteko edo helburu?

**ION MINTEGIAGA 'MINDE'**
LANGILEA

COVID-19a agertu zenetik umeak bereziki zigortuak izan dira. Akordatu konfinamendurik gogorrenean helduak lanera eta erosketak egitera ateratzen ginenean, -eta txakurrak paseoan zeuden bitartean-, umeak itxialdi erabatekora nola behartu zituzten.

Konfinamendua amaitu zenean berriz, protokolo zurrunak ezarri ziren ikastetxeetan. Talde burbuilak, etxeratzeak, maskararen derrigorrezko erabilera sei urtetik gora OMEren irizpideen aurka.

Egun ere, agintariek tematuta jarraitzen dute ikastetxeetako protokoloekin, *bunkerizatuta* dauzkagu kaleko bizitzarekin alderatuta.

Zergatik halako herra? Txertatuak ez daudelako. Umeen beraien edo momentuko osasun egoera orokorraren gainetik, tesia bera bihurtu da garrantzitsuena, bitartekoa behar zuena helburu: txertoak bakarrik atera gaitzake izurritetik! Eta bide horretan presio mekanismoak jartzeko erreparorik ez dute.

Gazte lokalen irekiera, nerabe eta gazteen txertaketa maila %85era iristearekin lotu zuten hasieran, xantaia nabarmenaz. Kale edanaren aitzakian, polizia bortizkeria erruz erabili dute.

Jokamolde horri jarraiki, ikastetxeetako neurriak umeen txertatze portzentajeen arabera altxatzeko asmoa dute? Txertatzeko onespenik emango ez dugun gurasoon errua izango da neurriak ez malgutzearen ardura? Ikastetxeak *txertodromo* bihurtuko dituzte? Ikasle bakoitzaren osasun konfidentzialtasuna bermatua geratuko da? Gelaren batean positibo kasuren bat ematen bada konfinatuak izango dira beraien ikaskideak ez bezala?

Beraiek normalean ez dira larri gaixotuko, baina transmisoreak izan daitezke! Diosku jakintsuak aldamenetik. Azkenaldian ikusten dugunez, kutsatze foku handiak ospitaleetan, apez-etxeetan, zahar etxeetan eman dira: gehienak txertatuta. Hasieratik txertatze prozesuan eredugarritzat hartu ziren Bretainia Handia edo Israel gaitza menderatu ezinik dabiltza. Txertatze maila baxua duen Errumania ere bai.

Bizitza ez da beltza edo zuria. Grisaren tonalitate ezberdinetan dantzan ibiltzen da. Zientzialariek laborategietan lan aparta egiten badute ere, zientzia batez ere natura da, eta natura dialektika, kontraesana eta mugimendua.

Tesi nagusia ezarrita dago. Antitesiak azpitik bultzaka datoz, eta sintesia ikusteke dago. Baina traza bat hartzen hasia da.

**Txertatzeko onespenik emango ez dugun gurasoon errua izango da neurriak ez malgutzearen ardura? Ikastetxeak 'txertodromo' bihurtuko dituzte?**

OLATZ PEÑAGARIKANO IRAZUSTA

# Zuri

Zuri idatzi nahi nizkizun hitzok. Zuri, irakurle zein sasi idazle, besteontzako tarte bat hartzen duzulako, besteontzako ahalegina egin, zure mundua gure egin dezagun, eta instant batez, zure borrokak ere gure egin ditzagun.

Asteburuetako gosari patxadatsuagoan irakurtzen dut zure zutabea. Eta goizeko lasaitasuna galako esateko zerbait eta partekatzea hobetsi duzuna. Ni bezala, bozgorailu txiki baten premia sentitzen duzulako batzuetan, eta idazteko abilezia berezirik izan gabe ere, ausartu zarelako burura datorkizuna papereratzea.

Orain, egiak esaten hasita, ez dut gustukoa beti esan nahi didazuna. Beste batzuetan, ordea, hunkitzen nauzu, mundu oso bat ireki didazulako, eta edukiaz gain zure esateko moduak ere maitemindu

> Orduan anestesiatzen naiz zure hitzekin, ateratzen nauzu nire ideien zurrunbilotik eta zurera naramazu, goxatzen nauzu, hiru minutuz bada ere.

restiegia dudanetan, bestelako momentuetan irakurtzen zaitut: loak hartu ezin dudanean, lanerakoan noala arrapalada bizian, bazkal osteko kafe azkarrean, eta baita ezkaratzeko eskailerak igotzean ere, bero-bero zaudenean buzoitik atera berri. Irudika nazazu zutik *kieto*, ahoan hortzetako eskuila dudala, zuk esateko duzuna nire ahoko osasuna baina interesgarriagoa delako une horretan. Onar dezadan, gutxitan hartzen dut astia behar duzun denbora eskaintzeko, baina neure buruari esana diot beharrezkoa zaitudala irakurtzea, badaukazunauelako. Eta orduan gertatzen da. Orduan anestesiatzen naiz zure hitzekin, ateratzen nauzu nire ideien zurrunbilotik eta zurera naramazu, goxatzen nauzu, hiru minutuz bada ere. Eta ederra da, benetan ederra.

Beharbada eskerrik asko sinple bat esateko ez da orri oso bat behar. Baina hainbeste merezi duzula iruditzen zait. Eta dudarik geratu bazaizu, hor doa berriz: eskerrik asko zuri, lagun ezezagun, nire mundu txikia aberasteagatik, eta eguneroko errutinari kolore apur bat emateagatik.

**AITOR MENDILUZE**
BERTSOLARIA

# Arrasto luzea

**Doinua** Hamalau heriotzena

Luze egiten ari
zen azken bolada
pandemiaren arau,
arauaren traba
orain dakarte denon
belarrietara
alarma egoera
pasa dela jada
arrastoa ordea
luzeagoa da.



# AGENDA

## OSTIRALA
URRIAK 29

**ALKIZA**
BISITA GIDATUA

**19:00.** *Odonatuak: uraren hegoak* bisita gidatua. Iñaki Mezquita Aranzadiko kidearen eskutik. Izena emateko: *kultura@alkiza.eus* edo 688 604 466. Fagus Alkizan.

**AMASA-VILLABONA**
HELLBONA

**19:00-23:00.** Brea eta Hybrid-moon taldeen kontzertua, Berdura plazan.

**ANOETA**
GURETZAKO GUNEA

**15:00-17:00.** Guretzako gunea. Jatorri anitzeko emakumeen bilgune. Guretzako jatorri anitzeko emakumeak biltzen diren gune bat da, elkarrengandik ikastea helburu duena. Udaletxean.
ANIMEN GAUA

*Xanduli manduli... Animen gaueko kontuak* ipuin kontaketa.
**18:00.** LH 1-2-3.
**18:45.** LH 4-5-6.

**ASTEASU**
TAILERRA

**19:00.** Kalabazak eta arbiak hustu eta Gau Beltzaren apaingarriak egiteko tailerra. Plazan.

**BERASTEGI**
KULTUR ASTEA

**16:00.** Txokolate jatea guraso elkartearen eskutik, eskola atarian.
**16:30.** *Itsasoko herri kirolak* parkea Kulkiren eskutik, eskola atarian.
**19:15.** Ibilgailu elektrikoak eta mugikortasun jasangarrirako aukerak tailerra Argitu programaren eskutik, GFAren laguntzarekin, erabilera anitzeko gelan.

**IRURA**
KONTZERTUA

**20:00.** Maialen Errotabehere baxenafartar bakarlaria, bere diskoarentzat testu guziak musikatu ditu, bakoitzak inspiratzen dionaren arabera. Folk, blues, pop edo rock.... Kulturunean edo herri eskolan.

**OREXA**
OSTIRAL KULTURALAK

**22:00.** Nat & Wats taldearen kontzertua.

**TOLOSA**
LARRAMENDIKO JAIAK

**18:00.** Txupinazoa.
**18:00.** Buruhandiak.
**18:30.** Pintxo-potea eta 80 hamarkadako musika girotzea.
**22:30.** Kontzertua Meliorarekin.
**Ondoren.** DJa 80 eta 90ko musikarekin.
ERAKUSKETAK

**Azaroaren 26a arte.** *Adar lotuak* arte erakusketa. 2009-2021. Margolanak, eskulturak eta marrazkiak. Aranburu jauregian.

**Azaroaren 28a arte.** Mikel Remaken *Ezin dena maite*. GKon.
KONTZERTUA

**22:00.** Farinellis eta Soma Cult taldeak Bonberenean izango dira. Sarrerak 8 euroko kostua.

**TOLOSALDEA**
IKT ASTEA

**09:00-12:00.** *Zibersegurtasun industriala: produkzio arloko arriskuak eta soluzioak*. Enpresetako zibersegurtasuna indartzeko gomendioak, zer egin edo nondik hasi ez dakiten Tolosaldeko enpresentzat. Lehiberri zentroan.
ELKARRETARATZEAK

Presoen eskubideen alde elkarretaratzeak, herriz herri.

## LARUNBATA
URRIAK 30

**ALKIZA**
ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

Bisita gidatua egingo da Tourseko

San Martin elizara. Orain gutxi arte bisitarientzat itxita egon da herriko eliza eta aurten erretaula eta gainerako altxorrak erakusteko zabalduko dute. Izena emateko *kultura@alkiza.eus* helbidera idatzi beharko da edo *whatsapp* mezua bidali beharko da 688 60 44 66 zenbakira.

**AMASA-VILLABONA**
HELLBONA

**18:00-23:00.** Basati, Blodybrotherhood eta Meliora taldeen kontzertua, Berdura plazan.

**AMEZKETA**
IRTEERA

Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserrira irteera, 60 urtetik gorakoentzat. Liernin bazkaldu eta Zerainen pasako dute arratsaldea.

**ANOETA**
URRIFEST

**18:00.** Itoizezank! taldearen kontzertua izango da. Norberak pitxarra etxetik eraman behar du. Afariak emango dituzte. Anoetako Gazte Asanbladak antolatuta. Plazan.

**BERASTEGI**
KULTUR ASTEA

**15:00.** Mus txapelketa herrikoia, Ategin.
**18:00.** *Ipuinarekin jolasean* ipuin kontaketa Lur Kortaren eskutik, kultura solairuko erabilera anitzeko gelan.
**19:00.** Pintxo-potea.

**BIDANIA-GOIATZ**
UDAZKENEAN, KULTURA KALEAN

*Bubble ball* jokoa: burbuja futbol desafioa, Bidaniako parke zaharrean.
**15:30-16:30.** Bidania-Goiazko LHko ikasleentzat.
**16:30-19:30.** 12 urtetik aurrera, adin mugarik gabe.

**IBARRA**
HARRERA EGUNA

**17:30.** Asanbladaren aurkezpena. **Jarraian.** Gaztaina eta txokolate jatea.

**TOLOSA**
LARRAMENDIKO JAIAK

Larramendi egun eta gau beltza. Mozorrotzeko gonbita luzatuta.
**10:00.** Diana dultzaineroekin.
**11:00-13:00.** Zirko eta ponpa tailerra (Intujairen eskutik).
**14:00.** Bazkaria (bakoitzak eramanda). Platerak eta edalontziak eskuragarri egongo dira eta edariak txosnan erosi beharko dira.
**15:00-16:30.** Gertuko magia (helduentzat).
**15:30.** Aurpegi margotzea.
**17:30.** Magia gala. 19:00. Alaiki (haurrentzat).
**22:00.** Alaiki (helduentzat).
52. TOLOSAKO ABESBATZA
LEHIAKETA

**11:00.** Leidor. Lehiaketa. Polifonia eta folklorea.
**16:00.** Leidor. Lehiaketa. Polifonia eta folklorea.
**19:30.** Leidor. Kontzertua. Sjaella & Quartonal (Alemania).
JABETZE ESKOLA

**16:00-19:30.** Xaboi naturalak egiten ikasteko tailerra. Bidatz Sasiain prestatzailearekin. Euskaraz eta gaztelaniaz. Doan. Ereite elkartearen lokalean.
KONTZERTUA

**22:00.** Manolo Kabezabolo Bonberenean.

# IGANDEA
## URRIAK 31

**ALTZO**
BISITA GIDATUA

**10:30.** Migel Joakin Elizegi Ateaga *Altzoko Handia*ren istorio harrigarria ezagutzeko bisita gidatua. Dokumentala ikusi eta erakustokia bisitatu ostean, Altzoko Handiaren ibilaldi gidatua egingo da, gidari aditu baten eskutik. Batzarremuño kultur etxetik abiatuta. Norbanako, familia eta taldeei zuzendurik. Hiru euro ordaindu beharko da pertsonako. Saioa euskaraz izango da. Nahitaezkoa da aurrez izena ematea.

**AMASA-VILLABONA**
AZOKA

**10:00-14:00.** Azoka ekologikoa Errebote plazan (Biolur eta Eneek).
**10:00-12:00.** Kalabazak apaintzeko tailerra, udaletxe azpian.
**12:00.** Show cooking Javi Riberoren eskutik.
**12:00-14:00.** Kantina, Berdura plazan.
GAU BELTZA

**18:00.** Gazteleku kanpoan elkartu eta haurrak taldetan sartuko dira arimen ibilbidera. LHko ikasleek gurasoen laguntzarekin egin dezakete ibilbidea, etxeko arropa zaharrarekin eta aurpegian maindirearekin mozorrotuta joateko gonbita luzatu dute.
**19:30.** Errebote plazan arima guztiak elkartuko dira. Suak piztu, beldurrak erre, gaztainak jan eta kopla abestea izango da.

**ANOETA**
GAU BELTZA

**19:00.** Iturtxulo plazatik abiatuta

Beldurren ibilbidea mozorrotuta eta kandelez lagunduta.
**Ondoren.** Beldurrak erretzea eta gaztaina jatea plazan.

**ASTEASU**
KONTZERTUA
**12:00.** Kalejira.
**12:30-13:30.** Andoaingo bandaren kontzertua, plazan. Euria eginez gero, frontoian. Kontzertu honetako egitaraua abesti ezagunez osatzen da, Ennio Morricone maisuaren selekzio batekin hasita eta euskal musika esanguratsuenera raino eramango du entzulea. Gainera oso gonbidatu berezia izango da musika eskolako irakaslea den Mirari Irurzun biolin jotzaile asteasuarra.
GAU BELTZA
**18:00.** Aurpegi margoketa izango da plazan.
**19:15.** Ipuina izango da ezustez betetako sustoen birarekin eta aldi berean eskulan tailerra egongo da plazan.
**Amaitzeko.** Gaztaina jatea izango da eta herriko trikitilariek girotuko dute Gau Beltza. Euria eginez gero Asteasuko frontoian.

**BALIARRAIN**
UDAZKEN KULTURALA
Gau beltza. Guraso elkarteak antolatuta.

**BERASTEGI**
KULTUR ASTEA
**12:00.** *Frontona* ikuskizuna, herriko frontoian.
**19:30.** *Gu primer!* antzezlan musikatua Ramon Agirre, Inazio Tolosa eta Nerea Gorritiren eskutik, eskolako gimnasioan.

**ELDUAIN**
GAU BELTZA
**11:00.** Marrazkiak eta dekorazio prestaketa. Etxetik eraman behar dira kartoiak eta margoak.
**17:00.** Mozorroturik plazara azaltzeko deia eta aurpegiak bertan margotuko dituzte.
**Gero.** Etxez etxe *Axuli Manduli eman kalabazak guri eskatuz* kalabaza bilketa egingo dute.
**Ondoren.** Kalabazak hustu eta plazan jarri eta txokolate beroa merienda gisa egongo da. Jolasak ere izango dira.
**Iluntzean.** Kandelak piztu eta gaztaina jatea.

**LIZARTZA**
GAU BELTZA
**18:00.** 3-9 urte artekoentzat, *Lizartzako sorgina* ipuin kontaketa, Vera Makucevicaren eskutik. Eta hamar urtetik gorakoentzat, *scape room*-a.
**Ondoren.** Belduraren ibilbidea.
**19:30.** Gaztaina erreak eta afari-merienda plazan, haur zein helduentzat.

**TOLOSA**
52. TOLOSAKO ABESBATZA
LEHIAKETA
**11:00.** Leidor. Lehiaketa. Polifonia eta folklorea.
**16:00.** Leidor. Kontzertua. Anuna (Irlanda).
**19:30.** Leidor. Kontzertua. VoNo (Suedia).

## ASTELEHENA
AZAROAK 1

**BERASTEGI**
KULTUR ASTEA
**09:30.** Berastegiko txoko kuttunak ezagutuz: Ipuliño mendira irteera herrikoia plazatik abiatuta.
**19:00.** Juliette & Pauline abeslarien kantu emanaldia, eskolako gimnasioan.

**TOLOSA**
52. TOLOSAKO ABESBATZA
LEHIAKETA
**11:00.** Leidor. Kontzertua. Hurkus & Laika. David Azurzaren bi musika-ipuin.
**Jarraian.** Lehiaketaren amaiera saioa eta sari-banaketa.
**19:00.** Leidor. Kontzertua. The State Choir Latvija (Letonia).

# ZINEMA

CHAVALAS
Larunbata,
igandea eta astelehena (19:00).
**Tolosa, Topic.**

ENTRE ROSAS
Larunbata (19:30 eta 22:00),
igandea (19:30) eta
astelehena (20:30).
**Amasa-Villabona, Gurea.**

DOS COLEGAS Y
LA GRAN BESTIA
Igandea eta astelehena (17:00).
**Tolosa, Topic.**

JUNGLE CRUISE
Igandea (17:00).
**Amasa-Villabona, Gurea.**

# «EZTANDA PUNTU ALTUENA TOLOSAKO ABESBATZA LEHIAKETAN IZATEA ESPERO DUGU»

**SHRABANI ARANZABE**
EUSKAL HERRIKO GAZTE ABESBATZAKO KIDEA

**Euskal Herriko Gazte Abesbatzak lehiara salto egingo du lehenengoz datozen egunotan; izan ere, urriaren 29tik azaroaren 1era ospatuko den Tolosako Abesbatza Lehiaketan parte hartuko dute.**

**Leyre Carrasco**

Leidor aretoko oholtza hartuko du beste urte batez Tolosako Abesbatza Lehiaketak, eta bertan izango dira munduko zortzi talde. Parte hartzaileek lau eguneko lehia izango dute aurretik, eta ikusle izatetik, protagonista izatera pasako dira oraingoan Euskal Herriko Gazte Abesbatzako kideak. Tartean da Shrabani Aranzabe (Alkiza, 1999), txikitatik esperoan izan duen ametsa betez.

**Nola hasi zinen abesbatza munduan?**

Txiki-txikia nintzela hasi nintzen abesbatza munduan, lau edo bost urte nituela gutxi gorabehera. Villabonako Eresargi Txiki Abesbatzan hasi nintzen Arantxi Padilla irakasle zegoela, baina berak utzi eta hortik Loatzo Musika Eskolako abesbatzan sartu nintzen. Pauso bat gehiago ematea erabaki nuen eta nire gurasoak Tolosako Hodei Truk Abesbatzako koordinatzailea den David Azurzarekin jarri ziren harremanetan, eta geroztik aurrera egin dut.

> «Beti amestu izan dugu Leidorreko oholtza gainean abesten genuela, eta bat-batean zure ametsa egi bihurtzen da»

**Euskal Herriko Gazte Abesbatzako kidea zara. Noiztik eta nola sartu zinen taldean?**

Euskal Herriko Gazte Abesbatza 2016an sortu zen. Hain zuzen ere, guk osatu genuen lehen edizio hura. Hainbat abesbatzetara deitu zuten, garai hartako abesbatza aitzindariak zirenak, hain zuzen ere. Azkenean, garai hartan oso gazte gutxi ginen abesbatza munduan oso sartuta geundenak edo abesbatza zuzendaritza egin nahi genuenak. Beraz, bakoitzaren ahotsa ezagutzeko froga txiki bat egin ziguten; kantutxo bat prestatu behar izan genuen eta bokalizazio txiki bat egin behar izan genuen. Horrela sartu nintzen.

**Zer suposatzen du zuretzat Euskal Herriko Gazte Abesbatzako kide izatea?**

Amets bat. Ez da konparazio onena, baina esate baterako, Euskal Herriko futbol selekzioko kide izateak sortzen duen sentimendua, abesbatza munduan Euskal Herriko Gazte Abesbatzako kidea izateak sortzen duen sentimendu bera izan daiteke. Azkenean, zu zara Euskal Herria ordezkatzen ari den gazte horietako bat, eta hori ohore handi bat da. Ilusioa.

**Zein ahots zara?**

Nesken artean hiru edo lau ahots izaten dira, eta mutilen artean ere hiru edo lau ahots. Ni soprano bigarrena naiz. Jende asko dago ahots indartsu edo altuagoa duena, baina nire kasuan, esan genezake ahots altuen artean bigarren ahots altuena naizela.

«Abesbatza munduan sartuta dagoenarentzat, bere bizitzako esperientziarik altuenetako bat da Tolosako Abesbatza Lehiaketa»

**Lehena izateko pauso gutxi geratzen zaizkizu. Zaila da horretara iristea?**

Teknika kontua besterik ez da, eta entseguetan hori asko eskertzen da.

**Euskal Herriko eta Nafarroako gazteek osatzen duzue Euskal Herriko Gazte Abesbatza. Zenbat kide zaudete guztira?**

Normalean lantaldea 40 gaztek osatzen dute, edo hori saiatzen dira behintzat. Batzuetan gutxiago egoten dira, eta beste batzuetan gehiago; bi gora edo bi behera, horrela ibiltzen dira. Hala ere, normalena lantaldean 40 gazte egoten gara, eta oraintxe bertan, horrela da, 40 gaztek osatzen dugu taldea.

**Beraz, ez zarete gutxi. Zer moduz moldatze zarete zuen artean oholtza gainean?**

Mundu desberdinetik datorren jende asko elkartzen duzunean, azkenean, bakoitza bere etxetik edo bere abesbatzatik datorrelako, zerbait zirraragarria sortzen da. Hau da, desberdina den hori guztia amankomunean jartzea oso aberasgarria da, baina aldi berean, horrek ere zailtasunak ditu. Izan ere, guztiak ohitura desberdinekin gatoz eta azkenean, ohitura berri batzuetara ohitu beharra dago. Gu kontzentrazioetan biltzen gara; hau da, ez gara eskuarki biltzen den abesbatza bat, astero-astero edo hilabetero ikusten garena, baizik eta, hiru edo lau hilabetetik behin edo ekitaldi berezi batzuetarako soilik biltzen gara. Beraz, horrek talde sendo bat izatea sortzen du, baina aldi berean, norberak bere kabuz lan gehiago ere egin behar izaten du. Hala ere, hori guztia oso aberasgarria da denontzat, eta uste dut merezi duen gauza bat dela, alferkeria alde batera utziz.

**Lehen entsegua iristen denean, zaila egiten zaizue martxa hartzea hainbeste denbora ikusi gabe egon osteran?**

Data batetik bestera alde handia dago, baina etxean lan asko egin behar izaten dugu.

**Ekitaldi berezietan biltzeko ohitura duzuela aipatu duzu. Zeintzuk dira zuentzat data zehatzak?**

Oso data zehatza izaten da guretzat abenduko zubia; data horretan urtero elkartu ohi gara eta. Aurten, ordea, ez dakigu elkartuko garen, urte guztian zehar Tolosako Abesbatza Lehiaketarako prestatzen aritu garelako. Normalean, lau edo bost hilabetetik behin elkartzen gara, ekitaldi berezi bat dagoenean soilik. Halako bat iristen denean lau edo bost entsegu egiten ditugu eta gero hurrengo hiru edo lau hilabeteetara ez dugu elkar ikusten.

**Zein garaiko musika abesten duzue?**

Guerrero musikagilearen XVI. mendekoa; Rossini XVIII. mende bukaerakoa eta XIX. mendekoa; eta Ravel XIX. mendekoa eta XX. mende hasierakoa. Gainontzeko kantuak garaikideak dira, eta euskal musika esparruan musikagile askoren obrak abesten ditugu. Adibidez, Javier Bello-Portu, Javier Busto, Xabier Sarasola edo Julen Elberdin.

**Eta, hizkuntzari dagokionez?**

Euskaraz, latinez, gaztelaniaz, ingelesez... edozein hizkuntza. Azkenean, gure zuzendariek aukeratu dute obra zehatz bat, agian munduaren beste aldetik datorrena, baina hori menderatzen ikasi eta jendeak zer abesten ari garen ulertzen saiatu behar dugu. Horretarako ere fonetika eta fonologia txukun-txukun jorratu behar dugu.

**Egun gutxira Tolosako Abesbatza Lehiaketan ikusi eta entzun ahal izango zaituztegu. Lehen aldiz hartuko duzue parte Tolosako lehiaketan?**

Bai, eta gainera, orokorrean, Euskal Herriko Gazte Abesbatzak lehiaketa batean parte hartzen duen lehen aldia izango da. Egia da gutako bakoitzak gure beste taldeekin hainbat lehiaketetan parte hartu izan dugula, baina denok batera EHko Gazte Abesbatza bezala inoiz ez. Izan ere, oso talde berria da, hazteaz eta osatzeaz inoiz utzi ez duen talde bat da. Maila honetara iristea oso zaila da, exijentzia maila altukoa baita. Beraz, halako lehiaketa batera aurkezteko prestatzeko urte batzuk behar izan ditugu.

«Mundu desberdinetik datorren jende asko elkartzen duzunean zerbait zirraragarria sortzen da»

**Lehen aldia izanda, urduri egongo zarete, ezta?**

Bai; hala ere, irrikatan gaude dena emateko. Izan ere, gazte abesbatza baten ezaugarrien artean dago *leherketa* dago. Hau da, kartutxoa kargatzen eta kargatzen joaten zara eta egun batean eztanda egiten du. Hori da guk espero duguna eta eztanda puntu altuena Tolosako Abesbatza Lehiaketan izatea gainera.

**Nola animatu zarete Tolosako Abesbatza Lehiaketan parte hartzera?**

Normalean, erabaki hori hartzen dutenak zuzendariak izaten dira, eta beraiek dira gure abesbatza dagoen mailatik lehiatzeko dagoen maila batera pasatzeko

Shrabani Aranzabe Leidorreko oholtzan abestuko du Euskal Herriko Gazte Abesbatzarekin. **L.CARRASCO**

erabakia hartzen duten arduradunak. Hala ere, gure ardura ere gure guztizko ardura da. Bikain egin behar dugula esaten badigute, zuzendariek eman dizkiguten jarraibide guztiak bikaintasun osoz jarraitu beharko ditugu. Azkenean, denon ardura da gure abesbatza gaur egun dagoen mailan mantendu eta gehiago igotzea, eta nik uste denon aldetik onena jarri behar dugula. Hala ere, erabaki hori jakin genuenean pozik hartu genuen, eta dena emateko asmoarekin gaude.

**Zu eskualdekoa izanik, zer esan nahi du zuretzat Tolosako Abesbatza Lehiaketan parte hartzeak?**

Abesbatza munduan sartuta dagoen batentzat eta biziki bizitzen duen batentzat, bere bizitzako esperientziarik altuenetako bat da. Abesbatzako karreran *tik* bat jartzea bezalakoa da. Izan ere, abesbatza munduan Leidorrera igotzea edo Tolosako Abesbatza Lehiaketan parte hartzea zure ibilbideko puntu gorenera iristea bezalakoa da. Txikitatik ikusi dugu, txikitatik joan gara ikustera, beti amestu izan dugu Leidorreko oholtza gainean abesten genuela, eta bat-batean *tik*-a berdea jarri eta zure ametsa egi bihurtzen da.

**Lehiaketan guztira zortzi taldek parte hartuko duzue, eta zuek zarete euskaldun bakarrak. Prestatuta duzuen errepertorioan euskal musika entzun ahal izango dugu?**

Bai, gainera, Tolosako Abesbatzako Lehiaketak daukan oinarrietako arau bat da derrigorrez hemen bertan egindako obra bat abestu behar dela, horren helburua baita euskal musikagile eta euskal musika mundura zabaltzea. Parte hartuko dugun zortzi abesbatzok abestu beharko dugu eta modu berean ebaluatuko gaituzte.

Era berean, Euskal Herriko Gazte Abesbatzak izan duen ohoretako bat da Josu Elberdin musikagilearen *Amorioa* obra guretzako konposatu duela, eta guk estreinatu genuen. Gainera, nazioartean lehen aldiz Tolosan entzungo da. Guretzako neurrira eginda dagoen traje bat da, gugan pentsatuta dagoena. Presio handia izango dugu, baina aldi berean, gure euskal musika da, betidanik abestu diren melodiak dira, txukun-txukun eta bikaintasunez idatziak daudenak. Zirrara handiz abesten saiatuko gara.

**Horrez gain, zer duzue prestatuta?**

Hori ezin da esan, ikusi eta entzun egin beharko da.

**Lehiarako prest zaudete?**

Bai, urduri baina gogo handiz eta motorrak berotzen ari gara.

# EGURALDIA

**IKER IBARLUZEA**
EGURALDI ADITUA

**OSTIRALA**
Giro nahasiagoa izango dugu. Goizean goiz zeruan hodei asko izanagatik, giro lasaia izango dugu. Eguerdi aldera fronte bat iritsiko da eta euri pixka bat utziko digu. Arratsaldean zaparrada txiki batzuk izango dira, baina ez da giro euritsua izango eta egun amaieran eguraldi nahiko lasaia geratuko da. Haizeak hego-mendebaldetik zakar joko du eta tenperatura jaitsi egingo da, 20-21 gradutan joaz goia.

**LARUNBATA**
Eguraldi nahasiarekin jarraituko dugu. Goizean zerua oso estalirik egongo da eta tarteka euri zaparrada batzuk izango dira, uneren batean mardul xamar botatzea baztertu gabe. Eguerditik aurrera eguraldi lasaiagoa izango dugu eta, nahiz eta, uneren batean zaparradaren bat bota dezakeen, orokorrean ateri eutsiko dio. Hego-haize zakarrarekin jarraituko dugu eta tenperaturak koska bat gora egingo du, 21-22 gradutan joaz goia.

**IGANDEA**
Giro kaxkarra izango dugu. Goizeko lehen orduetan hodeiak ugariak izanagatik, ateri eutsiko dio eta giro lasaia izango da. Goiz erdi-eguerditik aurrera ordea, hodeiak are gehiago trinkotuko dira eta euritara joko du eguraldiak. Tarteka zaparrada mardulak botako ditu, batez ere, azken orduetan, non sarri xamar botako duen. Haizeak goizean hegotik joko du, zakar. Eguerdian mendebal, ipar-mendebaldera egin eta ahuldu egingo da. Tenperatura igo eta 22-24 gradutan joko du goia.

URTE ASKOAN, IÑIGO!
Iñigo Guridi Lasa euskal preso politikoa (Amasa-Villabona).
Zure guraso, senide eta familia guztiaren partez
bihotz-bihotzez besarkada bero-bero bat.

ZORION AGURRAK
Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...
Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez
943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

# FARMAZIAK

URRIAK 29, OSTIRALA
**IBARRA**
**Egunekoa.** Edurne Mujika Martinez.
Euskal Herria kalea, 3. 943 67 09 15.

URRIAK 30, LARUNBATA
**TOLOSA**
**Egunekoa.** Lurdes Azpiroz Galarza.
Larramendi, 6.
943 67 51 18.

URRIAK 31, IGANDEA
**TOLOSA**
**Egunekoa.** Leire Andres Morant.
Zabalarreta lorategiak, 34.
943 67 38 49.

AZAROAK 1, ASTELEHENA
**TOLOSA**
**Egunekoa.** Iñaki Olarreaga Aranburu.
Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

**EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA: TOLOSA. LURDES AZPIROZ GALARZA. LARRAMENDI, 6. 943 67 51 18.**

# ORDU ALDAKETA

Urriaren 29, igandeko 03:00etan 02:00ak izango dira.


saridunak

Atarikideentzat bi saski ditugu

- Nekane Galparsoro (Tolosa)
- Karlos Mendibil (Ibarra)

Errigorako bi saski beltz zozkatzen dira

ATARIA jarriko da harremanetan


# NEGOZIO ESKU ALDAKETA

Tolosako Alde Zaharrean, Tolosaren bihotzean denda polit bat kudeatu nahi baduzu, lasaitasunez hitz egin dezakegu.
Ziur adostasun batera iritsiko garela.
Deitu 639 187 809 telefono zenbakira.

# harpidedun izateak badu saria
## saridunak

### 1 TOPIC
**TOLOSALDEKO NAZIOARTEKO TXONTXOLNGILO ZENTROA**

Bi lagunentzako bina sarrera

- **Nekane Andueza Oiarzabal (Tolosa)**
- **Garbiñe Azaldegi Arrieta (Tolosa)**

topictolosa.com
943 650414
Euskal Herria plaza – Tolosa

Bertaratu aurretik deitu museora.

### 2 ORDOKI Zalditegia
Lagun birentzako zaldi ibilaldia Ordubeteko ibilaldia.

- **Aiztondo Zerbitzu Mankomunitatea (Zizurkil)**

ARIZKUN
616 16 01 15
ordoki.com
hipicaordoki@gmail.com

Deitu mugikor honetara eguna adosteko.

### 3 Euskal Kostaldeko Geoparkea
**Flysch & Karst experience**

Azaroan egiteko bi lagunentzako itsas ibilaldia

- **Iñaki Larrea Tapia (Ikaztegieta)**

geoparkea.eus
Gozatu flyscharen edertasunaz ontzitik.

Zumaiako turismo bulegora deitu 943 14 33 96 edo turismo@geoparkea.eus emailera idatzi.